



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Haztegi Ikastola Koop. Elk.

Ikastetxearen kodea:

012342

Data:

2025(e)ko urtarrilaren 21(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

AURREIDATZIA

Haztegi Ikastola duela 50 urte baino gehiago guraso eta euskaltzale askori esker sortu zen Legazpin, Gipuzkoako Urola Garaian, euskara bera ere debekatuta zegoen garai batean eta mundurako pertsonak osotasunean heztea izan du helburu.

Horretarako hezkuntza komunitatearen parte hartzea ezinbestekoa zen eta kooperatiba osatu genuen. Ikastolan unibertsitatara joan aurretiko hezkuntza lantzen dugu, ahal den ikuspegi emankor, ireki eta zabalenean.

Haztegi Ikastola bi eremu nagusitan dago banatuta: Latxartegi deritzona eta eraikin nagusia. Lehenengoan, Haur Hezkuntzako ikasleak daude, 2 urtetik 4 urtera artekoak. 5 urtetik 18 urtera, aldiz, eraikin nagusian egiten dute beren ibilbidea. Latxartegin, ohiko gelez gain, psikomotrizitate gela eta parkea daude erabilgarri. Eraikin nagusian berriz, bi patio, bi frontoi (bat estalia eta bestea erdi estalia), aretoa, idazkaritza eta jangela daude.

2 urtekin hasten dira ikastolan, Haur Hezkuntzan aritzen dira, gero Lehen Hezkuntzan. Ondoren DBHn eta, hala aukeratzen dutenak, Batxilergoa osatu ondoren ateratzen dira ikastolatik.

Ikasleria eta guraso gehienak Legazpiko biztanleak dira eta bada portzentai bat beste herrialde edo kultura bateko ikasleek osatua (**%14,84 inguru**) eta urtero hazten ari dena. Normalean horiek izaten dira egoera sozioekonomiko okerrean jasaten dutenak eta ikastolak bere baliabideak jartzen ditu dituzten mugak gainditzeko eta ikastolan integratzeko beste ikasleen pareko. Arazo handiena izaten da askotan bizilekuz aldatzen direla eta horrela zaila da behar duten jarraipena egitea. Urteak ikastolan egiten dituztenak beste ikasleen pareko bihurtzen dira.

Irakasleri gehiena Legazpikoa edo inguruko herrietakoa da, batzuk ikastolan bertan ikasitakoak.

Ikastetxea saiatzen da baliabide teknologikoak, hezkuntzaren mesedetan, irakasle eta ikasleen eskura jartzen. Horretarako administrazioaren laguntzak erabiltzen ditu eta esfortzu bat egiten du teknologia berrien arloan.

Administrazio laguntzek konpromisoak dakarte: irakasleen konpetentziak hobetzen joatea, formakuntzetan parte hartzea eta planak eguneratzen joatea.

IKASTOLAREN ANTOLAKETA

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Haztegi ikastola 90-eko hamarkadaren hasieran hasi zen teknologia digitalak lantzen, hasieran ikasle nagusiagoei begira ordenagailuen erabileran gutxinaka trebatzen; eta baita ere, lanerako ezinbesteko bihurtzen ari ziren tresna digitalak irakaslegoa eta administrazioaren esku jarriz eta Ikastolen Elkartearekin batera irakasleak trebatuz.

IKT arduradunak izendatu ziren ondoren eta handik gutxira IKT taldea. Garbi zegoen iraultza teknologiko berria zetorrela ikasteetxetara. Ikastolen Elkartearen IKT taldearekin guzti hau aztertu zen eta hasieratik buru belarri sartu ginen mundu digitala aztertzen eta irakaskuntzara egokitzen.

Gero hornikuntzarako EJren laguntzak etorri ziren eta hortik aurrera aurrerapena geraezina izan da.

Gaur egun IKT arloak izugarritzko tamaina du eta baliabide asko, tresneria eta giza baliabideak, erabiltzen ditu.

Tresneriari dagokionez gaur egun gela eta lanpostu guztietan ordenagailuak daude eta inprimagailuak eskura.

Zenbait ekipo eramangarri daude ikastolan, 10 inguru, langileok egoera ezberdinetan erabiltzeko. Chromebook-ak ere eskura daude hala eskatzen duten irakasleentzat, euren lana errezteko.

Ikasleek (LH3-tik aurrera) Chromebook-ak dituzte, bakoitzak bana. Ikastolak erositakoak dira eta ikastolan lan egiteko prestatuta daude. Ikasleek ez dituzte etxera eramaten egoera berezietan, COVIDarekin adibidez, izan ezik.

HH5, LH1 eta LH2n tabletak erabiltzen ari dira. Hemen denek ez dituzte tablet bana baina ordutegi baten barruan denok erabil ditzakete.

DBH-DBHO informatika gela martxan mantentzen da, IKT eta Teknologia arloetan.

LH, DBH eta Batxilergoko gela guztietan proiektzio pantailak daude. Baita beste gela espezifiko batzuetan ere: Musika gela, Liburutegia, Marrazki gela, Aretoa, ...

Ikastolan toki guztietara heltzen den sare digital bat dago. Atal ezberdinak fibra optikoz lotuta daude, eta ekipo bakoitza ethernet harien bitartez.

Sare berean WiFia integratua dago. WiFi sarea ikastolako leku gehienetan dago erabilgarri, baina oraindik HH5, LH1 eta LH2 egokitzeko daude.

Ikastolak 3 hyper-v zerbitzari ditu eta euren barruan 6 zerbitzari logiko sortuta daude eta 2 makina, remoto eran langileak kanpotik konektatzeko, sare osoa kudeatzeko eta ekoizpen digitala gordetzeko, nahiz eta gaur egun ekoizpen digitala neurri handi batean "lainoan" gordetzen den. Horretarako GOOGLE WORKSPACE FOR EDUCATION domeinua daukagu nahiz eta bertara migratzen ari gara ekoizpen digitala. LH3tik gorako ikasleak eta langile guztiak domeinuan sartuta daude eta Google-ko aukerak erabil ditzakete, segurtasuna zainduz.

Erabilera desagokiak ekiditeko iragazki sistema bat du sareak (SOPHOS), ikastolako IKT mantenua daraman enpresak kudeatzen duena.

Ikastetxeak zenbait software erabiltzen ditu kudeaketarako. Garrantzitsuena ALEXIA da eta guraso, ikasle eta langile guztiak daude bertan. Ikastolako kudeaketa akademikoa bertatik egiten da eta ekonomikoa (guraso eta familiei begira) ere bidean doa. Erabilgarria da edozein gailu digitaletan.

SAIOKA plataforma ere erabiltzen da (ikastola bakoitzak berea), ikasleentzako ikasketa digitalean, liburu fisikorik gabe, erabiltzeko. Edozein motatako ikastaroak prestatu daitezke bertan, nahi izanez gero.

Zerbitzu digital guzti hauek mantentzeko ikastolak fibra optikoko bi linea ditu kontrataturik, interneten aritzeko eta zerbitzu telefonikorako ere.

Baliabide digitalen mantenua kanpoko enpresa batek darama ikastolaren gidaritzapean.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

DIGITALIZAZIO PLAN BERRIA: SARRERA

Dagokigun marko legal europarrean jasotzen den bezala, informazio eta komunikazio teknologien erabilera orokortuak, eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealitatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitzeko eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturen eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek teknologiaren eragin pertsonala eta soziala, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanari buruzko hausnarketa etikoa ere behar du, ikasleen konpetentzia digitalean zein irakaskuntzako konpetentzia digitalean garatuko dena.

Ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealitate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, Europako gomendioekin bat etorritik.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Beraz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleak irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten.

Bestalde, eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleen eta familien desberdintasunak eta gizarte eta hezkuntza ahultasunak. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat. Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko. Alde batetik, erabat seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatuko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestuko direla. Ikasleen garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

(Digitalizazio ikastaroak? Non kokatu?) Gure planean txertatu zenbatero berritu. Helburu berri bat sortuz kokatu.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da. Ikastolaren hezkuntza-proiektuak ikastolaren estrategia digitala jasoko du, hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza

sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko. Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitalki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira. Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko azken helburuarekin.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOLOGIKO BATEN BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartean aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleak hezteka baita irakasleon zeregin nagusia, datozen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetarikoa baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzeptua.

Hainbaten ustez, irakaspraktikak teknologiararen beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea.

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiararen ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren aztertu beharko da.

Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak betetzen lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez.

Ikuspuntu kritikoak garatzeko, euskal jendartearen dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia, eta nazioartean egiten ari direna kontuan hartu behar da. Ezaugarri hauek izango litzukeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan: inklusioa, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculumaren inplementatzeko aukera, besteak beste.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu “IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan” proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarrekin izendatutako mentore talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentorea, gure digitalizazio batzordearekin (IKT taldea) elkarlanean jardungo du eta bere gidaritzapean ibiliko gara.

Gure digitalizazio batzordeari dagokionean, buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, IKT arduraduna izendatu da, zuzendaria alboan duela. Mentoreak eskeinitako informazioa digitalizazio batzordeari eta zuzendaritza talde osoari zabaltzeko funtzioa edukiko du eta proiektuaren buru eta bultzatzailea izango da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza talde osoarena izango den.

Proiektuaren planifikazioari dagokionean, mentoreak bideratutako denboralizazioari jarraituz, ondorengo prozesua garatuko da:

1 - Egoeraren argazkia:

2022.eko urrian zehar eta “Selfie for School” tresna erabilita, Ikastolako irudia zein zen jaso zen, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen isla jaso zen, Ikastolako etapa bakoitzeko txosten bat lortuz.

(Selfie for School non dago? Txostenak non daude? Selfie for Teachers/DigiPrest formazioa irakasle berriek edozein momentutan egiteko aukera? Hau non kokatu?) Gure planean txertatu zenbatero berritu.

2 - Analisia:

2022.eko azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisia egin zen. Horrela zuzendaritza taldetik, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratsuenak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertu ziren. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izan zen eta horiek baliatu ziren AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak

2023.eko urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztu zituen. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealak izan behar dute.

4 - Ekintzak

2023.eko otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza eta IKT taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatu zituzten. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean **garatuko dira?** eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

2023.eko apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekin zitzaion, eskeinitako txostenaren baitan, horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

2023.eko ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igo zuen.

(Aldaketak, ondoren burutuko ikastaroekin argazki berria, kontenplatu beharko dira. AMIA berria? Nola kontenplatu? Non txertatu? Zenbatero eguneratu?) Gure planean txertatu zenbatero berritu.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

AZALPENA

Atal honetan Proiektu Digitala ikastolako testuinguru zabal batean kokatu behar da. Testuinguru hori ikastolaren Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean zehazten da. Beharrezkoa da dokumentu horiek bat etortzea eta guztiz osagarriak izatea.

Hau da, IPDak ez du independentea den dokumentu bat izan behar, ikastolaren kudeaketaren barruko elementu bat baizik.

Laburki aipatu behar da ikastola bakoitzaren kudeaketa orokorrean proiektu digitala non kokatuko den.

Proiektu digitala ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat etorriko da eta ikastolaren kudeaketa planean integratuta egongo da.

Ikastolaren kudeaketa plan estrategikoan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da.

Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikotik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuta izango dituen. Proiektu digitalean definitzen diren helburu eta ekintzak plan hauetan integratuko dira, epe ertainekoak plan estrategikoan eta epe motzekoak (urtebetekoak) urtez-urteko planetan agertuko dira.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Etapa bakoitzeko elementu esanguratsuenak, balio altuenak dituztenak eta baxuenak.

HH-LH

HH - LH irakasle taldea - LH5-LH6ko ikasleak

3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak)

Lidergoaren atalean emaitzak erdi mailakoak dira; bai zuzendaritza eta baita irakasleen iritziak antzekoak dira.

Altuenak: Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak: 4,2

Baxuenak: Irakaskuntza digitala aztertzeko denbora: 2,7.

Kolaborazioa eta sareetan emaitzak erdi mailakoak dira eta antzeko pertzepzioa dago 3 estamentuetan.

Altuenak: elkarlana 4,0

Baxuenak: Urruneko irakaskuntza eta ikaskuntzarako sinergiak: 2,9.

Azpiegitura eta ekipamenduak balorazio altuena 3 estamentuetan. Indargunea izan daiteke.

Altuenak: gailu digitalak: 4,7

Baxuenak: azpiegitura: 3,8.

Etengabeko prestakuntza profesionalean erdi mailakoak eta baxuen artekoak dira emaitzak.

Altuenak: EPP-n beharrak, 3,3

Baxuenak: Bizipenak partekatzea, 2,6

Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, erdi-mailakoen eta altuen artekoak dira.

Altuenak: hezkuntza komunitatearekin komunikatzea eta hezkuntzako online baliabideak 4,5.

Baxuenak: Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea 3,5.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea, emaitzak, erdi mailakoen eta altuen artekoak dira. Irakasleek baxu baloratu dute, maila horietan ez dutelako ikasgelan aplikatzen. Ikasleek berriz, oso altu baloratu dute ikasleen premietara egokitzea eta ikasleen arteko elkarlana.

Altuenak: Ikasleen premietara egokitzea eta ikasleen arteko elkarlana 3,9

Baxuenak: Sormena sustatzeas eta diziplinarteko proiektuak 3,4

Ebaluazio jarduketak, emaitzak baxu eta erdi maila artekoak dira eta nabarmentzekoa da irakasleen balorazioa baxuena izan dela, baina HH-LHkoak izanda normala izan daiteke. Ikusi behar da beste txostenetan ea ahulgunea izan daitekeen.

Altuenak: Ebaluazio digitala 3,4

Baxuenak: Gaitasunen ebaluazioa, atzerarikadura egokia eta nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea 3

Ikasleen kompetentzia digitalak, erdi maila eta altuen artekoak dira estamentu guztietan.

Altuenak: Portaera segurua, portaera arduratsua eta komunikatzen ikastea 4,3

Baxuenak: Kodetzen edo programatzen ikastea 2,8

Beste arlo batzuk:

Teknologia erabilera mugatzen duten faktoreen artean irakasleentzako denbora falta (%68) nabarmendu dituzte irakasleek eta zuzendaritzakoek (%100). Ordu librean falta nabaria da gehienbat HH-ko etapan.

Etxean teknologia erabiltzeko faktore negatiboetan nabarmen agertzen da ere denbora falta urruneko irakaskuntza prestatzeko ere (%60 irakasleek eta %67 zuzendaritzakoek).

Etxean teknologia erabiltzeko faktore positiboetan irakasleek ikastetxeak komunikazio erregularra eta ongi antolatua izatea baloratzen dute nabarmen (%60).

EPP jardueren erabilgarritasunean, irakasleek orokorrean ondo baloratu dute baina garapen profesionala sare profesionalen bidez (2,8), barne orientazio eta aholkularitza (2,8), ikasketa bisitak (2,9) eta programa akreditatuak (2,9) baxuago baloratu dituzte. Nabarmentzekoa da aipatutako atal hauetan parte hartze baxua egon dela.

Ziurtasuna teknologia erabiltzerakoan emaitzak nahiko txukunak dira. Denbora porzentaia ez da hain ona (2,8).Harrerari dagokionez balioak baxuak dira.

Ikasleek (LH5 eta LH6) baliabide teknologikoak erabiltzen dituzte baina etxean ikasteko gutxi (1,9). Ikasle gehienek badute beste dispositibo bat ikastolatik kanpo eta ezagutzen ere euren burua nahiko ondo baloratzen dute. Aipatzekoa da, laguntza gutxi eskatzen dutela.

DBH

DBH irakasle taldea - DBH1-4ko ikasleak

3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak)

Lidergoaren atalean emaitzak erdi mailakoak dira, zuzendaritza eta irakasleen iritziak antzekoak dira.

Altuenak: Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak: 3,9.

Baxuenak: Irakaskuntza digitala aztertzeko denbora: 2,5.

Kolaborazioa eta sareetan emaitzak baxu eta erdi maila artekoak dira eta antzeko pertzepzioa dago 3 estamentuetan.

Altuenak: Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida: 3,5.

Baxuenak: Urruneko irakaskuntza eta ikaskuntzarako sinergiak: 2,6.

Azpiegitura eta ekipamenduak balorazio altuena 3 estamentuetan. Indargunea izan daiteke.

Altuenak: Ikaskuntzarako gailu digitalak: 4,4.

Baxuenak: interneterako sarbidea: 3,6.

Etengabeko prestakuntza profesionalean emaitzak baxuak dira, ahulgunea izan daiteke.

Altuenak: EPP-n beharrak eta EPP-n partehartzea: 2,9.

Baxuenak: Bizipenak partekatzea: 2,6.

Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, erdi-mailakoak eta altuen artekoak dira emaitzak.

Altuenak: hezkuntza komunitatearekin komunikatzea: 4,5.

Baxuenak: Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea: 3,3.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea, emaitzak, erdi mailakoak dira. Ikasleek balorazio altuena eman dute.

Altuenak: Ikasleen inklusioa eta ikasleen arteko elkarlana: 3,6.

Baxuenak: Diziplinarteko proiektuak: 3,1.

Ebaluazio jarduketak, emaitzak erdi mailakoak dira.

Altuenak: Gaitasunen ebaluazioa: 3,8.

Baxuenak: Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea: 2,9.

Ikasleen konpetentzia digitalak, erdi mailakoak dira.

Altuenak: Komunikatzen ikastea: 4,1.

Baxuenak: Arazo teknikoak konpontzea: 3,1.

Beste arlo batzuk:

Teknologian erabilera mugatzen duten faktoreen artean interneterako konexio ez oso fidagarria edo mantxoa (%64,3) eta irakasleentzako denbora falta (%71,4) nabarmendu dituzte. Konpetentzia digital nahikoa ez duten irakasleak agertzen da %50-arekin.

Etxean teknologia erabiltzeko faktore negatiboetan denbora falta urruneko irakaskuntza prestatzeko (%50) da emaitza nabarmenena.

Etxean teknologia erabiltzeko faktore positiboetan zuzendaritzak beste modu batean ulertzen du eta oso ondo baloratzen du baina irakasleek orokorrean ez.

EPP jardueren erabailgarritasunean, irakasleek orokorrean ondo baloratu dute baina garapen profesionala sare profesionalen bidez (2,6), ikasketa bisitak (2) eta programa akreditatuak (2), baxuago baloratu dituzte. Nabarmenezkoa da aipatutako atal hauetan parte hartze baxua egon dela.

Ziurtasuna teknologia erabailtzerakoan, denbora portzentaian eta teknologiaren erabileran emaitzak nahiko txukunak dira. Harrerari dagokionez balioak baxuak dira.

Ikasle gehienek badute beste dispositibo bat ikastolatik kanpo eta ezagutzen ere euren burua nahiko ondo baloratzen dute.

Aipatzekoa da laguntza gutxi eskatzen dutela. Erabilera, hala ere, nabarmen altua da, nahiz txikiena etxean ikasteko den (3,2).

DBHO

Batxilergoko irakasle taldea - Batxilergoko (DBHO1-DBHO2) irakasleak

3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak)

Lidergoaren atalean emaitzak erdi mailakoak dira irakasleen iritzian (3,6), baina zuzendaritzak oso baxu baloratzen du (1,2).

Altuenak: Irakaskuntzarako modalitate berriak: 2,8.

Baxuenak: Estrategia digitala: 2,1.

Kolaborazioa eta sareetan emaitzak baxu eta erdi maila artekoak dira eta nabarmen baxua zuzendaritzan (1,5).

Altuenak: Elkarlana: 3,1.

Baxuenak: Aurrerapenaren ebaluazioa: 1,7.

Azpiegitura eta ekipamenduak balorazio altuena 3 estamentuetan. Indargunea izan daiteke.

Altuenak: Ikaskuntzarako gailu digitalak: 4,3.

Baxuenak: Azpiegitura: 3,4.

Etengabeko prestakuntza profesionalean emaitzak baxuak dira zuzendaritzarako (1,3) eta ertainak irakasleentzako (3,1).

Altuenak: EPP-n partehartzea: 2,9.

Baxuenak: EPP beharrak eta Bizipenak partekatzea, 1,9.

Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, erdi-mailakoak dira emaitzak. Ez dago alde nabarmenik hiru estamentuen artean.

Altuenak: hezkuntza komunitatearekin komunikatzea: 3,6.

Baxuenak: Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea: 3,1.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea, emaitzak baxuak (zuzendaritza: 2,4) eta erdi mailakoak dira. Irakasle eta ikasleek berdin baloratu dute (3,6).
Altuenak: Ikasleen inklusioa: 3,6.
Baxuenak: Diziplinarteko proiektuak: 2,5.
Ebaluazio jarduerak emaitzak baxuak dira, ez oso baxuak.
Altuenak: Ebaluazio digitala: 3,0.
Baxuenak: Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko iruzkinak egitea: 2,1.
Ikasleen konpetentzia digitalak, baxuak (zuzendaritza: 2,4) eta erdi mailakoak dira. Irakasle eta ikasleek ia berdin baloratu dute (3,3-3,2).
Altuenak: Portaera segurua: 3,3.
Baxuenak: Arazo teknikoak konpontzea: 2,5.

Beste arlo batzuk:

Teknologian erabilera mugatzen duten faktoreen artean zuzendaritzak hiru azpimarratu ditu %100ean, funts falta, irakasleentzako denbora falta eta konpetentzia digital nahikoa ez duten irakasleak. Irakasleek denbora falta da nabaritu dute gehien (%60) eta gutxiago konpetentzia falta (%40).
Etxean teknologia erabiltzeko faktore negatiboetan nabarmen agertzen da denbora falta urruneko irakaskuntza prestatzeko (%60) irakasleen aldetik eta irakasleek ikasleei erantzuteko astirik ez izatea (%100) zuzendaritza aldetik.
Etxean teknologia erabiltzeko faktore positiboetan ikastetxeari dagozkion komunikazio erregularra eta ongi antolatua izatea (%60), ongi antolatutako baliabide digitalera sarbidea (%80) eta estrategia digitala (%60) baloratzen dute nabarmen irakasleak.
Zuzendaritzak irakasleek ikastetxean kolaboratzen dutela teknologia digitalean nabarmentzen du ere (%100)
EPP jardueren erabailgarritasunean, irakasleek orokorrean ondo baloratu dute baina garapen profesionala sare profesionalen bidez (3) eta ikasketa bisitak (3), baxuago baloratu dituzte. Nabarmentzekoa da aipatutako atal hauetan parte hartze baxua egon dela.
Ziurtasuna teknologia erabailtzerakoan, denbora portzentajea eta teknologiaren erabileran emaitzak nahiko txukunak dira. Harrerari dagokionez balioak baxuak (1,8).

Ikasle gehienek badute beste dispositibo bat ikastolatik kanpo eta ezagutzen ere euren burua oso ondo baloratzen dute, aipatzekoa da, laguntza gutxi eskatzen dutela. Erabilera hala ere ona da nahiz txikiena etxean ikasteko da (3,0)

Etapako bakoitzean, estamentu desberdinen arteko diferentziak eta adostasunak.

HH-LH

HH eta LH etapetan zuzendaritza eta irakasleen artean ez daude diferentzia nabarmenik.
Pedagogiako bi ataletan dago alde handiena, txikia izanik. Zuzendaritzak hobeto baloratzen du.

Ikasleek baloratutako ataletan balorazioa beste estamentuekin baino handiagoa da baina diferentzi gutxikin pedagogia ikasgelan aplikatzea ez ezik. Hor bai da balorazio handiagoa da, bereziki irakaslearekiko. Baita zertxobait hobeto baloratzen dute azpiegitura eta ekipamenduak. Hemen kontuan hartu behar da parte hartu dutela LH5 eta LH6-ko ikasleak eta irakasleak HH eta LH etapetako guztiak. Egoera oso ezberdinak daude LHko goiko mailetan eta HHn

DBH
Hemen ere zuzendaritza eta irakasleak eskutik doaz. Ez dago diferentzia nabarmenik. Ikasleen konpetentzia digitalean zuzendariak zertxobait hobeto ikusten du irakasleak eta ikasleak baino, eta pedagogiaren laguntza eta baliabideetan zertxobait azpitik dago.

Ikasleek bat egiten dute beste estamentuekin, bereziki irakasleekin.

DBHO

Hemen bai dago diferentzi nabarmena zuzendaritza (pertsona bakarra) eta irakasleekin. Zuzendaritzaren puntuazioa beti dago azpitik eta bereziki nabarmena da lidergoan, kolaborazioa eta sareetan eta prestakuntza profesionalean. Besteetan ere diferentzi aipagarri bat dago baina ez aurrekoetan beste, non puntuazioa erdia edo herena den.

Ikasleek orokorrean irakasleekin daude ados nahiz eta beti zertxobait baxuago, baina inoiz zuzendaritza beste.

Etapako desberdinen arteko ondorioak edo laburpenak, etapen arteko desberdintasun eta adostasunak adieraziz.

Lidergoan: Etapako guztietan antzera baloratzen da (maila ertaina) eta irakasleek zertxobait gehiago. Batxilergoan zuzendaritzaren balorazioa oso baxua da

Kolaborazio eta sareetan: Gehienak ere maila ertainan. Batxilergoko ikasleak baxuago eta bereziki baxua batxilergoko zuzendaritza. Joera nagusia irakasleek gehiago baloratzea da batxilergoan bereziki.

Azpiegitura eta ekipamenduak: Nota handienak hemen daude. Ondo baloratuak dira estamentu eta etapa guztitan. DBH eta DBHOn ikasleak zertxobait(gutxi) azpitik.

Etengabeko prestakuntza profesionalean: Balorazioak ez dira beharko ziren bezain onak. Hiru etapetan antzera baloratze dute irakasleek. Zuzendaritzak baxuago, bereziki batxilergoan.

Pedagogia:Laguntza eta baliabideetan: Onak dira HH-LH eta DBHn. Batxilergoan balorazio jeitsiera dago hiru estamentutan. Nabarmenena zuzendaritzan.

Pedagogia:Ikasgeletan aplikatzerakoan: DBH eta batxilergoan etapetan maila ertainetan, baxura begira. HH-LH balorazio hobeak zuzendaritza eta irakasle aldetik bereziki.

Ebaluazio jarduketetan: Batxilergoan baxua da balorazioa baina ikasleek ondoen baloratzen dute. Besteetan balorazio ertaina da, zuzendaritzakoak direla gehien baloratzen dutenak.

Konpetentzia digitaletan: Balorazio ertaina baina nabarmen baxuagoa batxilergoan. HH-LH etapan balorazio onena. Zuzendaritza hobe irakasle eta ikasleak baino batxilergoan ezik.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Estregia digitala batxilergoan.
Orokorrean, irakaskuntza digitala aztertzeiko denbora.
Bizipenak partekatzea.
Hurreneko irakaskuntza eta ikaskuntzarako sinergiak.
EPP beharrak

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Egoera ekonomikoa gero eta larriagoa eta horrek digitalizazio planari egin diezaiokeen kaltea.
Datuen trataera legala. Workspaceren debekua Europako zenbait herrialdeetako eskoletan.
Hezkuntza legearen etengabeko aldaketak sortzen duen ezegonkortasun eza.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Ekipamenduak.
Hezkuntza komunitatearekin komunikatzea.
Elkarlana HH-LHn.
Etiket teknologia erabiltzeko, ikastetxeak komunikazio erregularra eta ongi antolatua izatea.
Etiket teknologia erabiltzeko, ikastetxeak komunikazio erregularra eta ongi antolatua izatea.
Ikasle gehienek badakite nola erabili softwarea eta aplikazioak laguntzarik gabe.

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Europak Next Generation funtsen bitartez digitalizazioan aurreratzeko eskaini duena.
Europar komisioak konpetentzia digitalari ematen dion garrantzia.
Ikasle gehienek badute beste dispositibo bat ikastolatik kanpo.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ikastetxearen azpiegitura eguneratua mantendu behar da.

Heltzen zaizkigun diru-laguntzak aprobetxatu ikastetxearen azpiegiturak eguneratuta mantentzeko.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Edukiak eta curriculumak: IKT inguruko estrategia berpentsatu. Pentsaera konputazionala eta programazioa.

Etapak bakoitzean, baliabide digitalen inguruko hausnaketa bultzatu. EPP beharrak identifikatu, ikasleek duten baliabideei etekin hobea ateratzeko

Europar komisioak kompetentzia digitalari ematen dion garrantzia kontuan izanik, batxilergoko estrategia digitala diseinatu.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Digitalizazioak dakarren aldaketetara eogokitze moduak bilatu.

Ikasleen KDaz baliatu, datuen trataera legala landu eta ezagutzeko. Ikastolako partaideen elkarlana aprobetxatu pentsaera konputazionala bultzatzeko.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Irakasleen prestakuntza oinarritzakoa da, gauzak bere bidetik joan daitezen, beldurrak eta ziurtasun faltak uxatzeko.

EPPn inbertitzea beharrezkoa da, eskuartean dugun tresneri eta bizitzari konfiantzaz aurre egin ahal izateko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Ikastolako IKT arduradunen talde bat diseinatzea, ikastetxean teknologiaren erabilera eraginkorra sustatzeko interesa dutenekin osatua. Kideek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko konpromisoa eta gaitasuna izan behar dute. Taldea urtebeteko epean egongo da martxan, eta ekimen teknologikoak modu eraginkorragoan eta egokiagoan inplementatzea bultzatuko du.

Deskriptorea

LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza

Epea

2024/06/30

Adierazlea

Mota

Helmuga

LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald

Bai/Ez

BAI

LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f

Bai/Ez

BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Erabaki taldearen egitura			2023/06/30	Egina
Taldeakidearen betebeharrak eta orduak zehaztea			2023/12/31	Egina
Erabaki, taldea lideratuko duen pertsona. (IKT arduraduna)			2024/03/30	Egina
Interesdunak identifikatzea: Ikastetxean barne-deialdi bat egitea, IKT zentroko arduradunen taldean parte hartu nahi duten irakasleak eta administrariak identifikatzeko. Parte-hartze aktiboa sustatzea eta hautagaiak beren postulazioak aurkeztera motibatzea.			2024/06/30	Egina
Helburuak ezartzea eta planifikatzea: Taldea osatuta dagoenean, helburu argiak eta espezifikoak ezartzea, teknologia ikastetxean eraginkortasunez ezar dadin bultzatzeko. Helburu horiek bat etorri behar dute ikastetxearen ikuspegi eta helburu estrategikoekin.			2024/06/30	Egina
Urteko planean adierazi			2024/09/10	Egina

Helburua

Ordulari adimentsu eta mugikorren erabilera barne araudian txertatzea.

Deskriptorea

LG 2.4 Aro digitaleko ikaskuntza lerrokaturik dago lehentasun zabalagoekin

Epea

2024/12/16

Adierazlea

Mota

Helmuga

LG 2.4 A1 Ikastetxeak, hautemandako beharren arabera, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-jardu

Bai/Ez

24-12-16

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikasleen ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako teknologia digitalen erabilera sustatzea, gutxienez DBHko 1. zikloko bi arlotan, Saioka plataforma bidez ikasleek errubrika bitartez feedbacka jasoz, prozesu hori kontzienteagoa eta gogoetatsuagoa bilakatuz.

Deskriptorea		Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean		2023/10/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egiteko	Ehunekotan	%100
II 1.1 A3 Badago egutegi bat, ikastetxean koaderno digitala ezartzeko.	Ehunekotan	%100
II 1.1 A4 Egutegian formakuntza saioak ere finkatuta daude.	Ehunekotan	%100

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastaroaren data erabaki			2023/05/16	Hasita (%1-19)
Ikastolaren Elkartearekin hitzegin ikastolan egiteko			2023/05/23	Prozesuan (%20-39)
Hartzaileak erabaki			2023/06/16	Hasita (%1-19)
Ordutegia erabaki			2023/06/30	Egina
Ikastaroa burutu			2023/09/30	Prozesuan (%20-39)

GP Garapen profesionala

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

Helburua

Komunikazio estrategia esplizitua ezartzea (barnekoa eta kanpoko)

Deskriptorea		Epea
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita		2024/06/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Ehunekotan	80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Komunikazio bideak (ofizialak/ez ofizialak izendatu	Alexia, GSuite, web orria, sare sozialak, Whatsapp	Zuzendaritza taldea	2023/05/30	Egina
Komunikazio bideak (ofizialak/ez ofizialak) aztertu eta erabiliko direnak izendatu.	Alexia, GSuite, web orria, sare sozialak, Whatsapp	Zuzendaritza taldea	2023/11/28	Egina
Hezkuntza komunitateko talde bakoitzarekin komunikatzeko bideak zehaztu	Ikasleekin: GSuite (eposta, G. Classroom), Saioka. Gurasoekin: GSuite (eposta), Alexia, web orria, sare sozialak	Zuzendaritza taldea Tutoreak/irakasleak Idazkaritza	2023/12/31	Egina
Komunikazio plana garatu eta publikatu.		Komunikazio taldea	2024/06/30	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua		
Eduki digitalen biltegiaren egitura lainoan sortzea eta migratzea		
Deskriptorea	Epea	
Egituraren definizioa burutu da lainoan.	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxeak egitura lainoan sortu du eta irakasleek erabiltzen dute dokumentazioa bertan gordetzeko.	Ehunekotan	75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Lainoan egitura bat prestatu		Zuzendaritza	2026/01/07	Prozesuan (%40-59)
Egiturara oinarritzko dokumentazio pedagogikoa jaso		Zuzendaritza	2026/01/07	Prozesuan (%80-99)
Dokumentu ofizialekin zer egin erabaki		Zuzendaritza	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)
Administrazio dokumentazioarekin zer egin		Administrazioa	2026/01/07	Prozesuan (%20-39)
Lasterbideen egitura egin		Zuzendaritza	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastolako IKT arduradunen talde bat diseinatzea, ikastetxean teknologiaren erabilera eraginkorra sustatzeko interesa dutenekin osatua. Kideek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko konpromisoa eta gaitasuna izan behar dute. Taldea urtebeteko epean egongo da martxan, eta ekimen teknologikoak modu eraginkorrarean eta egokiagoan inplementatzea bultzatuko du.				Egina	
LG	Ordulari adimentsu eta mugikorren erabilera barne araudian txertatzea.				Egina	
II	Ikasleen ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako teknologia digitalen erabilera sustatzea, gutxienez DBHko 1. zikloko bi arlotan, Saioka plataforma bidez ikasleek errubrika bitartez feedbacka jasoz, prozesu hori kontzienteagoa eta gogoetatsuagoa bilakatuz.				Hasita (%1-19)	
GP						
EJ						
EC						
EN	Komunikazio estrategia esplizitua ezartzea (barnekoa eta kanpoko)				Egina	
AZ						
IB	Eduki digitalen biltegiaren egitura lainoan sortzea eta migratzea				Prozesuan (%20-39)	